



Ebazpena, 2017ko martxoaren 28koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdia behin betikoz esleitzen da.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2016ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen. (2016ko abenduaren 29ko EHAA).

Hezkuntza Saileko, 2017ko martxoaren 1eko sailburuordearen Ebazpenaren bidez ebatzi zen aipatu den deialdia, behin-behineko izaeraz, 2017ko martxoaren 6an argitaratu zen "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, eta alegazioak aurkezteko epea ezarri zen.

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren.

Honako deialdi hau arautzen duen Aginduaren 8. artikulua araberan,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak esleitzea.

Esleitzea 690.275,36 euro, ondoren datorren moduan:

ARABAKO Lurralde Historikoa	314.145,22
GIPUZKOAKO Lurralde Historikoa	209.078,97
BIZKAIKO Lurralde Historikoa	167.051,17

Bigarrena: deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eta izan ez diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, interesdunak jakinaren gainean egon daitezen.

Hirugarrena: behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalikoa zaio Hezkuntza sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan ebazpen honen berri ematen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 28a

Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN